

Atenaseko interbentzioa

1.- Europako eraikuntza prozesuaren norabide neoliberala ez da berria. Duela lau urte, itun konstituzionalaren eztabaidaren harira, norabide hori salatu genuen. Ulertzen genuen prozesua herriaren, –herrien–, bizkar egiten ari zela, eta langile-klasearen interesen aurka.

Azken urte hauetan gertatu dena, krisiarekin gertatzen ari dena, ez du salaketa hura berretsi besterik egiten, eta, gainera, era krudel batean.

2.- Krisi sakon batean murgilduta gaude, arlo ekonomikoa, soziala, ingurumenarekin lotutakoa eta politikoa hartzen dituen. Hau guztia erregulazio falta ororen eta finantza-munduan inguruko kontrol ezak eragindako espekulazio basatiaren ondorio da.

Krisia ororen gainetik desregulazioa goretsi duten politiken ondorio zuzena da.

3.- Hainbat lider politikok hasieran bestelako diskurtsoa zuten arren –“kapitalismoa birsortzearen” edo “finantza-mugimenduen inguruko kontrolak ezartzearen” alde mintzatzen ziren, esaterako–, lehen unetik ziur ginen krisi honen ondorioak guri ordain-araztea egingo zigutela.

Eta horrela izan da.

Botere publikoek ez dute inolako zalantzarik izan banka salbatu asmoz izugarritzko dirutzak bideratzeko. Eta, orain, faktura langileok ordaintzea nahi dute, soldatak murriztuz –baita sektore publikoan ere–, pentsioak murriztuz, langabezia-sariak murriztuz, lan-munduan are eta flexibilitate gehiago inposatuz, osasun publikoa erasotuz...

Horiek dira Europako Batasunak gobernantza ekonomikoa deitutakoaren eta Euroaren aldeko Itunaren bidez inposatu dizkigun neurri ekonomikoak.

4.- Lehenetsuna zorrak mugatzea eta defizit-publikoa gutxitzea da. Bazen lehenago ere Egonkortasun Itunaren bidez, Europako gobernuak diziplinatzea helburu zuen tresna politikoa. Eta, hau guztia gutxi balitz, orain are eta gehiago gogortzen da.

Atzeraldia, langabezia eta babes-sozialaren falta larriagotzen duten murrizketa neurrien alde egiten da. Bien bitartean, zerga-sistema bidezkoagoari eta arlo-publiko indartzeari uko egiten zaio.

5.- Hau guztia helburu batekin egiten da: enpresa-errentetara eta kapitalaren errentetara doan aberastasunaren zatia handitzea, Europako langileak urte luzetako borroken ondorioz lortutako eskubide sozial eta ekonomikoekin amaitzearen kontura.

6.- Plan hau aurrera eramateko guztiak ados jartzen dira. Eskuineko, zentroko eta baita ere euren burua ezkerrekotzat definitzen duten gobernuak.

Guztiak daude kapitalaren esanetara –edo, 'merkatuak' deitzen duten eufemismo horretara–. Sozialdemokraziak uko egin dio edozein alternatiba defendatzeari, eta politika atzerakoien kudeatzaile bihurtu da, lehenago eskuinari leporatzen zioten berdin-berdina egiten dutelarik.

Gobernuek, guztiek, erabaki dute Europako Batasuna neurri guzti hauek inposatzeko aitzakia izatea. Bide batez, erabateko gehiengoaren pobretzea eta ikaragarri ahaltzua den gutxiengo bat are eta gehiago aberastea eragingo duten neurriak.

Beste behin, Europan duten erantzukizuna saihestu nahi dute.

7.- Mugimendu sindikalak ezin dio estaldurarik eman ez portaera honi ez eta politika hauei.

Ondorioak ateratzea behar-beharrezkoa da. Ez dugu politika horiekin inolako zerikusirik izan nahi. Ez dugu nahi langileak horiekin lotu gaitzaten.

Europaren alde egiten dugu, bai, baina bestelako Europa bat. Eta horretarako ezinbestekoa da egungo politikak errefusatu eta bere arduradunak salatzea.

Horregatik ez da nahikoa planak eta programak zuzentzearekin. Ez da nahikoa Euroaren aldeko Ituna zuzentzearekin. Aurrez-aurre errefusatu beharra dago.

8.- Erronka ikaragarri baten aurrean gaude, eta soilik aurre egin ahal izango diogu sindikatuok ditugun botere tresnak lantzean zentratzen bagara. Hots, indarrak honakoan jartzen baditugu:

- o sindikalizatzea
- o antolatzea
- o eta mobilizatzea, esparru guztietan: enpresa, sektorea, lokala, nazionala, internazionala.

Indartu eta independenteak izan behar gara. Soilik horrela lortu ahal izango dugu politika hauen erabateko aldaketa.

Alternatibak egon badaude, badago Europa eraikitzeke beste era bat

Laura Gonzalez de Txabarri

2011eko maiatzaren 16an